1.-) Iñigoren, aitaren eta amaren adinen batura 86 urtekoa da. Iñigok 13 urte ditu, eta bere aitak, 38. Zenbat urte ditu amak?

Eragiketa(k)

Erantzuna: _____ *urte ditu amak*

2.-) Andonik 14 urte ditu. Aitak, berriz, Andoniren urteen hirukoitza du.

a) Zenbat urte ditu aitak?

b) Zenbat urte dituzte bien artean?

Eragiketa(k)

Erantzunak: a) _____ *urte ditu aitak*

b) _____ *urte dituzte bien artean*

3.-) Aparkaleku batean 142 auto zeuden goizean. Egunean zehar, 87 auto irten dira hortik, eta 65 sartu. Zenbat auto daude aparkalekuan gauean?

Eragiketa(k)

Erantzuna: _____ *auto daude aparkalekuan gauean.*

4.-) Herri-lasterketa batean 515 gizonek, 373 emakumek eta haur batzuek hartu zuten parte. Guztira, 1.172 pertsonek.
Zenbat haurrek hartu zuten parte lasterketan?

Eragiketa(k)

Erantzuna: ____ haurrek hartu zuten parte lasterketan

5.-) Jonek album batean jaso ditu kromoak. Bederatzi kromo jarri ditu orri bakoitzean,eta 38 orri bete ditu. Zenbat kromo ditu Jonek?

Eragiketa(k)

ErantzunaK _____ kromo ditu Jonek

6.-) Marik 8 bira egin ditu atletismo pista batean. Pista 750 m-ko luze da.
a) Zenbat metro egin ditu Marik? b) Zenbat Km dira?

Eragiketa(k)

Erantzunak: a) ____ metro egin ditu
b) ____ Km dira